

“PARTIDUAK SAN MAMESEN” UDAL PLANA

- **Bilboko Udalak garraio publikoa erabiltzea gomendatzen die zaletuei, San Mames Barrian jokatu diren partiduetarako. Era berean, Renfe, EuskoTran, MetroBilbao, Bilbobus, Bizkaibus eta taxiak estadiotik geltokiak gertu dituztela gogorarazi nahi dizue.**
- **Udalak zaletuei aurretik joatea gomendatzen die jende-pilaketarik ez egoteko sarrera eta irteeran, baita gizalegez jokatzea ere.**
- **Gutxi gorabehera partidua hasi baino ordu bat lehenago eta bukatu eta 30 minutu geroago, estadioaren inguruan trafiko-etendurak egingo dira. Trafiko-murriztapen horiek azken ordu erdian oso nabarmenak izango dira, izan ere Zunzunegi etorbidean trafikoa etengo da zaletuak estadiotik ateratzeko. Beraz, autoak Guturbay kaletik joan beharko dira A8ko sarbideetara joan ahal izateko.**
- **Halaber, partidua egunetan debekatuta egongo da egun osoan trafiko aldaketak egongo diren kaleetan aparkatzea. Gainera, mugikortasun-murrizketak dituztenentzako 20 leku erreserbatuko dira.**
- **Udaltzaingok trafiko-segurtasuna bermatuko du eta ordutegiak aldatu ahal izango ditu pertsona kopuruaren arabera eta betiere segurtasun arrazoiengatik.**

Bilbon, 2013ko irailaren 24an. Bilboko Udalak martxan jarri du berriz ere “Partiduak San Mamesen” Udal Plana, datorren egunean, irailak 26, arratsaldeko 20:00etan San Mamesen Athletic Club eta Real Betis taldeek jokatu duten partida dela eta.

Dispositibo hau Athleticek San Mamesen partida bat jokatu duen bakoitzean jarriko da martxan zaletu eta auzokideen mugikortasuna bermatze, zelaitik ateratzea eta sartzea errazte, pertsona-fluxu egokia ahalbidetze eta larrialdi ibilgailuak erraz sartzea bermatze aldera. Hala ere, estadioan eta honen inguruko obrak jarraitzen duten bitartean aldaketak egon daitezke.

Trafiko aldaketez gain, gutxi gorabehera 20 Udaltzaingok trafiko-etendurak egingo dituzte, baita inguruko bide-segurtasuna bermatu ere.

Era horretan, Udaltzaingoak trafiko-segurtasuna bermatuko du eta ordutegiak aldatu ahal izango ditu pertsona kopuruaren arabera, betiere segurtasun arrazoiengatik.

Udalak zaletuei aurretik joatea gomendatzen die jende pilaketarik ez egoteko sarrera eta irteeran, baita gizalegez jokatzeari ere.

Halaber, Bilboko Udalak ekitaldietan zein partiduetan garraio publikoa erabiltzea gomendatzen du, eta Renfe, EuskoTran, MetroBilbao, Bilbobus, Bizkaibus eta taxiek estadioaren inguruan geltokiak dituztela gogorarazi nahi dizue.

TRAFIKOAN EGONGO DIREN ALDAKETAK


San Mames Barriaren sarrera eta irteeretan pertsonen segurtasuna bermatzeko, ondorengo trafiko-aldaketak egingo dira partidu egunetan:

- **Trafiko-etendura eta aparkatzeko murriztapenak:**

Lehenengo murrizketak gutxi gorabehera ekitaldi bakoitza **hasi baino ordu bat lehenago** egingo dira, eta ekitaldiak bukatzerakoan ordu erdi gehiago iraungo dute. Orobat, honako kale hauetan ibilgailu pribatuek ezin izango dute garraiatu:

- Urkixo zumarkalea (Sabino Arana eta Luis Briñas)
- Luis Briñas (Felipe Serrate eta Zunzunegi etorbidearen artean)
- Felipe Serrate
- Ventosa bidea
- Rafael Moreno "Pitxitxi" (futbol zelaiaren inguruan)

Gainera, segurtasun arazoengatik **ezin izango da EGUN OSOAN** trafikoa etengo den kaleetan aparkatu.



- **Partidua bukatu eta geroko trafikoko etendura:**

Ekitaldi bakoitza bukatu eta ordu erdira gutxi gorabehera, S. Arana eta Zunzunegi etorbideen trafikoko arintasuna errazteko honako kale hauek trafikorako itxita egongo dira:

- Urkixo zumarkalea (Maria Diaz Harokoaren eta Luis Briñasen artean)
- Luis Briñas (Felipe Serrate eta Perez Galdos artean)
- Sabino Arana, goranzko norabidean, Jesusen Bihotza plazaren eta Perez Galdos kalearen artean.
- Sabino Arana, beheranzko norabidean, Simon Bolibar eta Jesusen Bihotza plazaren artean.
- Zunzunegi etorbidea



Modu honetara, eta trafiko-eten hauen ondorioz, A8tik Bilbora San Mameseko sarrera berritik datozen ibilgailuek **Gurtubai** kaletik igaro beharko dute.

- **Bilbobusen zerbitzu bereziak eta garraioentzako aldaketak:**

Bilboko Udalak San Mamesen inguruan geltokiak dituzten Bilbobus lineen zerbitzua luzatuko du, zaletuak arazorik gabe etxera bueltatzeko.

Beraz, 38 eta 80 lineek -Termibusen geratzen direnak- eta 25, 56 eta 62 lineek -Jesusen Bihotzetik hasten direnak- errefortzuak izango dituzte partidua Bilbobusen ordutegia baino beranduago bukatzen denean.

